

¿QUÉ LE PASA A MI UÑA? ¿TENGO HONGOS?

La infección por hongos es el trastorno más común de las uñas en adultos y se conoce como onicomicosis. Puede afectar a varias uñas, tanto de los pies como de las manos, pero es más frecuente en pies. La uña infectada cambia de color, se quiebra, engrosa o abomba. A veces, se asocia con infecciones por [hongos en los pies](#).

Normalmente es una infección leve. Se aconseja eliminar toda la parte dañada mediante tijeras, limas, etc.

Si tu profesional de la salud valora que hay que tratarla, lo habitual es que te recete un medicamento en forma de barniz de uñas:

- El barniz se aplica directamente sobre la uña afectada.
- Cada barniz de uñas tiene sus instrucciones específicas de utilización y distinta frecuencia de aplicación. Consulta el [prospecto](#).
- Lo normal es que el tratamiento dure varios meses.



Si la infección es más grave, hay varias uñas afectadas o el tratamiento con el barniz no ha funcionado, tu médica o médico te podrá prescribir un medicamento para tomar durante meses por vía oral.

Es frecuente volver a infectarse. Para evitarlo, se recomienda:

- 1 MANTENER LIMPIAS Y SECAS LAS MANOS Y LOS PIES.**
- 2 EVITAR COMPARTIR CORTAUÑAS O LIMAS.**
- 3 USAR CHANCLETAS EN VESTUARIOS O DUCHAS PÚBLICAS.**

Bibliografía:

- CIMA: [Centro de Información online de Medicamentos](#) [Internet]. Madrid: Agencia Española de Medicamentos y Productos Sanitarios; 2017. Fichas técnicas de antifúngicos ungueales.

- Martínez de la Hilda G. Onikomikosis. Argibideak. 2024;34(3):18-19.
- Educación para el paciente: [Infecciones micóticas en las uñas \(Conceptos básicos\)](#). En UpToDate, Post TW (Ed), UpToDate, Waltham, MA. Consultado: 15/05/2024.

Elaborado por: Iñigo Aizpurua, Teodoro Alonso, Rosa Añel, Naiara Bidaburu, Isabel Elizondo, Laura Gancedo, Nagore Lejarza, Itxasne Lekue, M^a José López, Juan Carlos Martín, Oihana Mora, Carmela Mozo, Corpus Peral, Isabel Porras, Juan Uriarte y Olatz Vergniory.

cevime
centro vasco de información de medicamentos
medikamentu informazioko euskal zentroa

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

La información aquí contenida tiene únicamente finalidad informativa y en ningún caso sustituye las recomendaciones de tu profesional de la salud. Queda totalmente prohibido el uso de este documento con fines promocionales. ISSN: 2255-3177



ZER GERTATZEN ZAIO NIRE AZAZKALARI? ONDDOAK AL DAUZKAT?

Pertsona helduen azazkaletako arazo arruntena onddoek eragindako infekzioa izaten da; infekzio horri onikomikosi esaten zaio. Azazkal bat baino gehiagori eragin diezaioke, izan eskuetakoak zein oinetakoak, baina ohikoagoa izaten da oinetako azazkaletan. Infektatutako azazkala kolorez aldatu, apurtu, loditu edo konkortu egiten da. Batzuetan, onddoek oinetan sortutako infekzioekin lotzen da.

Normalean infekzio arina da. Kaltetuta dagoen zatia kentzea gomendatzen da, guraize, azazkaletako lima eta abarrekin.

Zure osasun arloko profesionalak tratatu egin behar dela erabakitzen badu, ohikoena azazkal-berniz formako medikamentu bat errezetatzea izaten da:

- Berniza infektatutako azazkalean aplikatzen da.
- Hainbat berniz mota daude, bakoitzak erabiltzeko modu eta aplikazio-maiztasun konkretuak ditu. Kontsultatu bere [erabilera-orria](#).
- Tratamenduak hilabete batzuk irautea da normalena.



Infekzioa larriagoa baldin bada, hainbat azazkal baldin badaude infektatuta edo bernizarekin egindako tratamenduak funtzionatu ez badu, zure medikuak hainbat hilabetez ahotik hartzeko medikamentu bat errezetatu ahalko dizu.

Ohikoa izaten da berriz ere infektatzea. Hori saihesteko, ondorengo gomendatzen da:

1**ESKU ETA OINAK GARBI ETA LEHOR EDUKI.****2****AZAZKAL-MOZTEKO GAILUAK ETA LIMAK EZ PARTEKATU.****3****TXANKLETAK ERABILI ALDAGELA ETA DUTXA PUBLIKOETAN.****Bibliografia:**

- CIMA: [Centro de Información online de Medicamentos](#) (Internet). Madrid: Agencia Española de Medicamentos y Productos Sanitarios; 2017. Fitxa teknikoak.

- Martínez de la Hídalga G. Onikomikosis. Argibideak. 2024;34(3):18-19.
- [Educación para el paciente: Infecciones micóticas en las uñas \(Conceptos básicos\)](#). En UpToDate, Post TW (Ed), UpToDate, Waltham, MA. (consultado: 15/05/2024).

Egileak: Iñigo Aizpurua, Teodoro Alonso, Rosa Añel, Naiara Bidaburu, Isabel Elizondo, Laura Cancedo, Nagore Lejarza, Itxasne Lekue, M^a José López, Juan Carlos Martín, Oihana Mora, Carmela Mozo, Corpus Peral, Isabel Porras, Juan Uriarte eta Olatz Vergniony.

Fitxa honen helburu bakarra informazioa ematea da, eta inola ez ditu ordezkatzen zure osasun arloko profesionalak emandako gomendioak. Gutziz debekatuta dago dokumentu hau promozio helburuetarako erabiltzea. ISSN: 2255-3177